

Baserrietako euskara

N

eure bizitzan zorte handia izan dut. Berrogei urtez 23 baserrietan bizitzea, zazpi probintzietan. Hasi Bizkaiko Zea-nuritik eta Zuberoako Larraineraino.

Baserrietan euskara guztirakoa da. Animaliak, behiak, ardiak, ahuntzak, oiloko gobernatzea, basoko lanak, soloa ereintzarako preparatzea, ereitea, uzta biltzea dela... lanerako erabiltzen den tresneria dela, milaka hitz erabiltzen dira, kalean ezezagunak direnak.

Azpeitian ikerketa bat egin zuten. Baserrietan kalean baino askoz lexiko, atsotitz, esamolde gehiago erabiltzen zirela ikusi zuten.

Adibide txiki bat. Nik neure atsotitz liburuan astoari lotuak dauden ehun atsotitz baino gehiago jaso nituen zazpi probintzietan. Kalean astorik erabiltzen ez denez gero, ez dakizkitez atsotitz horiek.

Azpeitian sei urte eman nituen eta gero berrogei urtez egonaldiak egin izan ditut hango Odrizolatxo baserrian. Konturatu naiz kalean ez dutela, adibidez, “eraitsi” erabiltzen. Errezilera jotzen duten baserrietan oso ederki bereizten dute “jaitsi” (*jetxi* ahoskatzen dute) eta “eraitsi” (*eraxi* ahoskatzen dute).

“Jaitsi” intransitibo erabiltzen dute: “Atzo kalera jaitsi nintzan”. Eta eraitsi transitibo: “Eraitsi ezazu lastoa ganbaratik”.



‘Horrek ez du izenik’

Mixel semeak. Kattalin

amonak berriz: ‘Horrek

mihura du izena’.

Gipuzkoako baserrietan

ere ‘miura’ esaten diote.

Bizkaian ‘uzturi’



Zoritzarrez, baserrietan bertan hitz asko galdu egin dira. Gure egunotan ia ez da gari-rik ereiten. Gari ereiteari eta biltzeari hitz eta esaldi piloak loturik zeuden. Gauza bera esan dezakegu errotako lanei buruz, lihoari buruz, ogi erretzeari buruz.

Gazteek zaharrek baino gutxitxoago dakite euskaraz. Erdaraz hobeki.

Sunbillan, adibidez, nik etxeko andreari: “Maritxu, nola eramango duzu kalera bildotsa, libre edo uzkalia”.

Juanito, etxeko semeak galdetu zidan. “Zer da hitz hori? Ez dut sekula entzun?”. Amak berehala erantzun zion: “Bai Juanito, guk beti erabili izan dugu hitz hori: Uzkali. Besoak eta hankak lotzea esan nahi du”.

Goizuetan ere zaharrek etengabe erabiltzen dute uzkali.

Nafarroa Behereko Landibarko Mastrika baserrian gauza bertsua. Mixel, hirurogei urteko semea sagarrondoan zegoen belar gaiztoari nola esaten zioten galdetu nion. “Horrek ez du izenik”. Kattalin amonak: “Horrek *mihura* du izena”. Gipuzkoako baserrietan ere “miura” esaten diote. Bizkaian “uzturi”.

Zaharren ahotik milaka atsotitz eta esapide bildu izan ditut berrogei urte honetan, gazteek ez dakizkitenak. Egiten ari naizen esapide hiztegian agertuko dira esapideok. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Jartzen gaituzte noiznahi hemengo aldean. Joan den igandean marmitako txapelketa egin genuen

Urruñan. Iaz baino hamar bat bikote gehiagok parte hartu zuten. Bazkaltiarrek ere, lauogei bat gehiago. Herriko plaza goizetik animatua eguraldia ere alde. Eguerdin aldera telebistan pausatu genituen begiak Orioko traineru estropada aitzaki. Urdaibai nagusi, Gernika ingurutik bertaratutako koadrilaren pozerako. Ez ziren harrotu, ez genituen gu bezalako zale amorratuak. Bazkalondoan ohiko kantuak, bertako errepertorioa nagusiki nazio. Bestaldekoen aldean kantariagoak omen gu. Hala onartua digute, hori dugu gure

Hegoaldeari so

balioa. Omen. Norbaitek galdetu du telebista piztea. La Sexta. Espainiako futbol liga hasia da. Derbia San Mamesen. Aupa Athletic, biba Osasuna, gora Real. Oihuak hasi dira eta musikariak bertsolariena eginez, mikrotik ere orroka. Txuri urdinen ereserkia jo dute. “Gipuzkoan garela dirudi” ebatzi dit albotik bertako neska batek. Itzali dugu gaztekeraz ari zen telebista. Jaia berbideratu dute musikariek *Eperra* kantatuz. Ez dut irudikatzen Gipuzkoako herrixka bateko elkarte batean frantses telebista martxan errugbia jarraituz eta B.O.ren eta Avironen aldeko oihu eta ereserkiak kantatuz bazkal ostean. Gehien-goaren pagotxa. “Arrazoirik ez dugu gutxi garelako”. ■